FERNO

SUZKO HERENSUGEA




PIZTIEN ERRONKA 1

ADAM BLADE

Miren Ibarluzearen itzulpena

desclée


LAUTADA
IPARRALDEKO MENDIAK
MENDEBALDEKO OZEANOA
BELDURRAREN BASOA
HAIZEAREN


Abantia
IZOZTUAK
LAUTADA NAGUSIAK
LANDAK
HUGO ERREGEAREN JAUREGIA
HIRIA
ERRINEL
ERREKA



Ongi etorri Abantia erresumara! Aduro nauzu, Aduro Azti Ona; Hugo Erregearen jauregian bizi naiz. Ez zara sasoirik onenean iritsi, alajaina...

Antzinako idazkietan jasota dagoenez, halakoren batean arriskuan murgilduko omen da gure erresuma baketsua.

Bada, une hori iritsi da.

Malbel Azti Ilunaren sorginkeria zitalen mendean, sei Piztia –Suzko herensugea, Itsas sierpea, Erraldoi basatia, Zaldi-gizona, Elurretako munstroa eta Sugar-hegaztia– amorratuko omen dira, eta piztiek suntsitu egingo omen dute lehenago babesten zuten lurraldea.

Abantia arrisku bizian dago.

Baina, antzinako idazkietan eroi baten berri ere ematen da. Bertan idatzitakoaren arabera, mutiko batek Piztiak madarikaziotik libratzeko erronkari ekingo dio, gure erresuma gaitzetik atera dadin.

Ez dakigu mutiko hori nor den; baina, heldu da haren unea...

Gure eroi gazteak izango al du erronkari aurre egiteko beste adore eta bihotz! Gurekin bat egin eta zer gertatuko den jakin nahi duzu?

Abantiak agur egiten dizu,

Aduro

SARRERA



Kaldor Ausarta zutik zegoen muino--magalean. Soinean zeraman brontzezko armadurak diz-diz egiten zuen goizeko eguzki argitan.

—Gertu dago Suzko herensugea. Halaxe nabari dut.Zaldunak muino gaineko lainoaren norabidean altxatu zuen ezpata:

—Gure erresumaren izenean, geldiarazi egin behar dut!

—Zorte on, nagusi –erantzun zion Edward morroiak.

Kaldorrek eskua armaduratik atera zuen, eta Edwarden sorbaldan paratu. Bi-biek zekiten agian ez zutela inoiz ere berriz elkar ikusiko.

Zaldunak buelta hartu zuen, eta aldapa ilunean gora desagertu zen. Oinek, harri artean, laban eta irrist egiten zioten. Baina, tinko arrastatzen zuen zaldunak bere burua, astiro-astiro gora eginez. Laster bildu zuen lainoak, eta morroiak ezin zezakeen jadanik ikusi.

Zaldunak isiltasun ikaragarria baino ez zuen utzi atzean. Dar-dar egin zuen Edwardek.

Bat-batean, indarren bat muinoa astintzen hasi zen. Oinetan eta hanketan gora nabaritzen zituen Edwardek lurraren dardarizoak. Zartada ikaragarri batek estropezu eginarazita, erori eta kokotsarekin kolpe egin zuen lurraren kontra. Metal-gustua igarri zuen ahoan: odola!

Zer ari zen gertatzen?

—Kaldor! –oihukatu zuen Edwardek lau hankatan harri artean aztarrika–. Itzuli!


Oihua, ordea, galdu egin zen airea betetzen zuten soinu karrankarien artean. Muinoak oso-osorik egin zuen dardara bortizki.

Gainera etorriko ote zitzaion? Beldurrak jota zegoen Edward. Bihotza punpaka, gora begiratu zuen; zintzilik zeuden haitz handi bi mugitzen hasita zeudela ikusi zuen. Eguzkipean, distiratsu ageri ziren labanen gisako ertz zorrotzak. Halako batean, sastatu, eta, aizkora-buruak balira bezala, erori egin ziren. Kuzkurtu egin zen Edward.

Lainoak argitu zuenean, Edwardek Kaldor begiztatu zuen muinoaren aldeetako batean, zerbaiti heltzen. Orduan, zer edo zer altxatu zen zaldunaren atzealdetik. Edwardek begi dirdaitsu bat ikusi zuen, bai eta larruazal lodi ezkatatsua ere. Buru luzanga bat zen, herensuge ikaragarri baten burua!

Hark guztiak ez zuen inondik ere itxura onik. Nagusia zuzen zebilen: piztia gertu zegoen.

Eta, huraxe ez zen muino bat… herensugea bera zen! Bat-bateko beldur-ikaraz, behera begiratu eta orduantxe ohartu



zen Edward herensugearen buztanaren gainean zegoela; eta Kaldor piztia haren lepoari helduta zegoen! Zintzilik zeudela ziruditen haitzak, ostera, herensugearen hego izugarriak ziren. Korrika ihes egin nahi zuen, baina hankak beldurrak izoztu balitu bezala zituen. Herensugearen gorputzaldea ere ikusten zuen orain, sakon arnas hartzean puzten. Lurruna zerien izaki haren sudur-zuloei.

—Kaldor, itzuli! –oihukatu zuen Edwardek berriz.

Orro beldurgarri batek, ordea, mututu egin zituen Edwarden hitzak. Herensugeak hegoak zabaldu zituen beste behin ere, luzatzeko-edo, airean kolpe hilgarriak emanez.

—Hegan alde egin behar du! –esan zuen Edwardek garrasika–. Kaldor, azkar! Itzuli!

Ahul entzun ziren Kaldorren hitzak:

—Zoaz hirira. Ohartarazi Hugo erregea. Korri!

Baina, Edwardek mugitzea lortu orduan, herensugeak buztanari eragin zion; Edward

hegaz bidali zuen. Gogor jo zuen lurra berriz ere, eta arnasestuka geratu zen Edward lurrean. Piztia aireratu egin zen. Kaldorren garrasiek bete zuten Edwarden burua orduan.

Edward zutitu eta nagusiaren atzetik korri egiten saiatu zen, baina herensugea goregi zegoen ordurako. Orro izugarri bat bota zuen, eta sugar laranja batek argitu zuen zerua. Urrunean desagertu zenean, Kaldorren esku-babesetako bat erori zen Edwarden ondo-ondora, kiskalita eta ketan. Esku-babesaren atzamarretan urrezko giltza bat zegoen atxikita.

Kaldorren garrasiek oihartzun egin zuten airean. Eta, gero, erabateko isiltasuna. Nagusia joana zen. Suzko dragoia Malbelen sorginkeriatik libratzeko misioak porrot egin zuen.